

noaua



ASTEBURU HONETAN JAI GIROA NAGUSI IZANGO DA SANTUENEAN

Ostiral honetan arratsaldeko 17:00etan piztuko dute jaien hasierako suziria / 14

ARGAZKIA: NOAUA

Santueneko argazki lehiaketan saritutako irudiak batu ditugu / 09

'Plazan Bazan', haurren irudimena sustatzeko tartea / 12

Aginagan jokatuko den pilota jaialdirako sarrerak eskuragarri / 14

Igande honetako Baxurde Krossa frontoian hasi eta bukatuko da / 22

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

(Irailaren 1etatik 15era)

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa. Hiritartasun digitalerako Informatika.

Kalkuluan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Elikadura. Osasuna. Ongi izatea. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **OINARRIZKO EUSKARA**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08



Dubai, Oman, Abu Dhabi

IRTEERA 2024ko Aste Santua

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.


943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



%100 bertako sagarra

**Ondo pasa
Santueneko jaietan!**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*




Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

nooua

jarraitu gure sare sozialak



www.noooua.eus

Sagarrondoak uzta biltzeko unearren zain dira

Sagar biltzen egunotan hasiko dira inguruko sagastirik gehienetan. Batzuk dagoeneko hasiak daude.

Iaz batutako sagar uzta txikia izan zen. Euskal Herriko datue-tan erreparatu, Euskal Sagardoa jatorri deituraren izenean 1,2 milioi litro egin ziren. 2023ko sagarra batzeko garaia den honetan, zenbait datu aurreratu ditu Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. "Uzta handia izango

da kopuruz eta sagarra kalitate handikoa datorrela aurreratu liteke, udara ezin hobea egin baitu", azaldu berri dutenez. "Euri dezente egin du modu pausatuan eta bero handiegirik ere ez da izan. Beraz, iazkoarekin alderatuta askoz uzta handiagoa espero dugu".



Inguruko sagarrondo batzuk bete-bete ikusi ditugu azken egunotan.

Garbigune mugikorra, Santuenean

Irailaren 14tik aurrera, garbigune mugikorra Santuenean izango da. Era honetan, etxe-ko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Irailaren 21ean osteguna, garbigune mugikorra Zubietara eramango dute.

1952. urtean jaiotakoentzako irteera

Urriaren 15ean Añanako gatzagara (Araba) irteera antolatu dute. Goizeko 8:30ean finkatu dute abiatzeko hitzordua Bordatxo parean.

Izen-ematea

Txangoan izena emateko deitu 688 645 318 telefono zenbakira.

Nerea Ibarzabal 'Bar Gloria' nobelaz arituko da Sutegin

Urriaren 17an asteartea, literatur solasaldi berri bat egingo dute Sutegi udal liburutegian. Honakoan, Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* (Susa, 2022) nobela hartuko dute hizpide. 19:00etan hasiko da ekitaldia eta egilea bertan izango da. Nobelaren hainbat ale liburutegian dituzue eskuragarri.

Marokoarrak laguntzeko elkartasun kanpaina

Marokon izandako lurrikarari aurre egiteko, elkartasun ekimen baten berri eman du herrikide batek. Ekarpenean ekonomikoa Bizum bidez (02915 zenbakira idatziz) edo ES40 0049 4687 1824 1608 8649 kontu zenbakia bidez egin daiteke. Kontzeptua, "Ayuda Humanitaria Terremoto Marruecos".

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:

Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkatea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpuru.

Erredakzio kontseilua:

Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus

Banatzailleak:

Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.

Imprimategia:

Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Biharrak inoiz ez daki (11)

Laura maitea, eskutitzak idazten ez diren garaian eskutitza idaztea erabaki dut. Eta zuri bidaltzea. Postari zintzoak eramango ote du zure buzoiraino?

Poesia haizeak eramaten baitu, eta hitz politik loreetan kateatuta geratzen dira lehortek sikatzen dituen arte. Garaian garaikoa. Udaberriak ernatu eta udazkenean suizidio pausatuan lokartu. Oroiminak kolpatzen zaituenean, utzi egin behar izaten da. Halakoetan, hobe luma modernoa orri zarpailetan irristatzea armak su egitea baino. Erokeriarik egitekotan, izan dadila krimen poetiko bat.

Kronika bat.

Horixe izan da egindakoa. Kororik gabekoena. Akaso hori izan da motiboa edonora joanda ere, lapur gisan ikusten gintuztela, eta gu, buhame zoro, jardin magikoen xerka, bidaia-kartetan marraztu genituen kokapen debekatu guztiak. Amesterakoan, haietara itzul gaitezen. Bazkalosteko kafeak, berriro ere, Hendaiaiko hondartzara eraman ninduen modu berean, plisti-plasta urertzean zu, uhinekin jolasean. Itzulerako bidaiak zabaldu baitzuen distantzia, aiztoak haragia nola. Min ematen du, azkura eragiten, mingotsa. Salvo Montalbano sentitzen naiz: inguratzen nauten krimenetan buru-belarri murgilduta, analgesiko bikaina azalpean gogortzen doazen sentiminen kontra. Ez ditu desagertzen, ez, soilik baretzen die euren basa sena.

Okerragoa da lanean ikusten dudana jendearen



"Hitzok idatzi artean dardarizo goxoak astindu dit gorputza".

Titulitis chronica. Ahaztu dituzte hizkuntzetara lotzeko beste hesteak, erraietara zuzenean daramatenak. Maitasuna. Laztanak, kilimak, ukituak, garrasiak, besarkadak, muxuak.

Agurrekoa datorrik gogora. Aparkalekuan ginen eta arratsaldea zen. Ia ilunduta, neguko argia hain baita ahula eta hotza, agur esan gabe ezkututzen da mendebaldeko mendi-muinoen atzean. Niri ere neguko argiari bezain gutxi gustatzen zaizkit agurrak. Horri gehitu ditxosozko ordularia, ez zaiona une bakar batez burutik pasatzen bere zilborra begiratzeari utzi, eta besteon mesedetan desagertzea. Ezpainetan muxu bat. Denbora dago. Bi muxu. Beste bat nahi dut. Hiru. Berotasun iheskorra gatibu hartzea ezin, eta ezpain haragitsuen oroitzapenak ere utziko ninduen uste ez nuen momentu horretantxe.

Papera eta boligrafoa eta akordua.

"EROKERIAK EGITEKOTAN, IZAN DADILA KRIMEN POETIKO BAT"

Amets fabrika abandonatueta deserriratu naiz. Goroldio eta orbelezko ohean etzan eta lepotik sexuraino zabalduko alderik alde. Borroka-lubaki bakoitzaren arkeologia, abismoek irensten zaituzten talaietaraino urreratu, eta ostean, burua bota sakontasun beltz horretara. Mamuak eta munstroak hor esnatzen direla diote elezaharrek. Ele berriak, mutu, eszeptiko, magiari muzin eginda. A! Min ematen du sabel-txoko horretan erratza pasatzeak, arropa zaharrak botatzeak, ganbara husteak, izozkailuari izotza urtzeak.

Musika jarri behar dut garbiketa egunetan. *Sorrow and sadness, bitterness, grief: Memories I have of you won't leave me in peace. My mind is running back to the west coast of Clare thinking of you and the time we passed there.*

Hitzok idatzi artean dardarizo goxoak astindu dit gorputza. Bidaian berriz jarrita aire lanbrotzuko paisaietan, nikotina eta malenkonioa usainean, urrats mamuen arrastoan. Eta horiek bezain iheskorak diren keinuak, irribarreak, hitzak, haizeak ekartzen ditu belarri ondora.

Zer gehiago dizut kontatzeko? Eskutitza idaztea bukatutakoan, lokartuko naiz, eta bihar ere, eguzkia Kalejar aldetik jaikiko da. Egingo ditugu bizirautea ziurtatzen diguten gorrotoa eta maitasuna. Zaborra aterako dugu. Eta infinitura arte, errutina.

Biharrak inoiz ez daki zer datorren, ordea; eta erokeria bat egingo badugu, Laura?

Keramika tailerrean izena emateko garaia

Buztinzulo taldeak keramika tailer berri bat iragarri du. Urriaren 17an hasi eta maiatzaren 28an amaituko da eta asteartero batuko dira, 17:30etik 19:30era.

- Prezioa: 200 euro.
- Izen-ematea irailaren 30ean amaituko da.
- Harremanetarako: buztinzulo@gmail.com

Irailen ere bisita gidatuak egiteko aukera izango da

650 Usurbil Bizi egitasmoaren baitan antolatzen diren 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatuek segida izango dute hilabete honetan ere; larunbat eta igande eguerdiro 12:00-13:00 artean. Sutegitik abiatuko dira ibilaldiak.

Hori bai, aurrez eman behar da izena, 650usurbilbizi.eus atarian.

Katekesi Taldean izena emateko epea irailaren 17an amaituko da

Katekesian izen-ematea modu telematikoa egingo da aurrean. Salvatore parrokiatik aditzera eman dutenez, "2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia".

Gaztetoak katekesiko 1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek aldiz, salvatoreparrokia@gmail.com helbidera idatziz edo Parrokiako 943 361 239 telefono zenbakira deituz utz dezakete telefonoa eta izena. "Gu jarriko gara harremanetan familiekin".

- Izena emateko egunak: irailaren 11tik 17ra arte.
- Katekesi saioen hasiera: urriaren 6an.

IKA-MIKA

Biodibertsitatea berriz ere galtzaile, oraingoan Orbeldin

ANERREKA INGURUMEN ELKARTEA, EGUZKI, NATURKON (GIPUZKOAKO TALDE NATURZALE ETA EKOLOGISTEN KOORDINADORA)

Foru Aldundiak Anerreka, Eguzki eta Naturkonen alegazioak baztertu eta "interes publikokotzat" jo du Orbeldiko zentral hidroelektriko zaharrea ur bizien kanala eraikitzea ahalbidetzen duen Plan Berezia.

Honek esan nahi du, besteak beste, Orbeldiko presa mantenduko dela, nahiz eta presa hori botatzea Oria biziberritzeko gakoetako bat den, itsasotik sartuta arrainek (izokinek, aingirek eta abarrek) aurkitzen duten lehen oztopo handia delako. Aldundiak berak botatzea aurreikusi du Gipuzkoako Oztopoak Iragazkortzeko Plan Gidarian. Are gehiago, Planean bertan dio hori

dela aurreikusitako ekintza nabarmenetako bat. Esan beharrik ez dago Aldundiak orain Orbeldiri buruz hartu duen erabakiak guztiz jota utzi duela Plan Gidariaren sinesgarritasuna.

Nolanahi ere, Aldundia ez da Orbeldin gauza bat esan eta guztiz kontrakoa egiten duen bakarra. Horra hor Udala. Usurbilgo Oria Ibaiaren Paisaiarako Ekintza Planean argi eta garbi irakur daiteke Orbeldiko ingurua leheneratu egin behar dela, eta, horretarako, espresuki seinalatzen da presa eraitsi egin behar dela, arrainentzat eta Oriako uraren fluxu naturalarentzat oztopo delako. Hala ere, Usurbilgo Udalak behin-behineko onespina eman dio ur bizien kanalaren Plan Bereziari.

Eusko Jaurlaritza ere kanalaren alde dago, jakina. Izan ere, Bingen Zupiria bera izan zen 2021ean

publikoki proiektu honen berri eman zuena. Gainera, laster angula-arrantza "profesionalizatzeko" dekretua argitaratuko du. Europar Batasunaren debekuari iskin egiteko? Ez, noski, "angularen hobebereizte". Eta angula-arrantza baimentzen jarraitzen duen bitartean, "espezia babesteko neurri berriak" iragarriko ditu. Tamalez, horien artean ez da egongo itsasotik sartuta arrainek aurkitzen duten lehen oztopo nagusia eraistea, Jaurlaritzak ere ur bizien kanala hobesten duelako.

Ez dago herri-erakundeen arteko kontsentsua baino hoberik...

Badakigu Orbeldiko ur bizien kanala ez dela Lemoizko zentral nuklearra, ezta errauskailua ere. Baina garbi dago biodibertsitatea sakrifikatzen dela edozein interesaren aurrean. Edozein. Eta inork eragozten ez badu, horixe gertatuko da Usurbilen ere.

Urriaren 13tik 15era egingo den Baterajotzeko lehen gonbidatuak

Euskal Herriko neska* gazteek "Utopiak lehertzeraino!" aldarriean, urriaren 13tik 15era Usurbilen egingo duten Baterajotzea ekimenean parte hartuko duten lehenengo sortzaile edota hizlarien berri ematen hasi dira antolatzaileak. Musikariei dagokienez, Ziztada eta Olatz Salvador udal-erri honetan izango ditugula iragarri dute. "Estrategialodiak artikulatzeko" Ezin Kabitu jardunaldietako kide Laura Galar eta Itziar Reguero gonbidatuko dituzte; Mirene Begiristain Zubillagak "borroka ekologistaren eta feminismoaren sinergietatik eraldaketa gauzatzeko"; "Feminismo dekolonialaren eraldaketa gaitasunaz aritzeko, Pastora Filigrana Garcia"; "Komunikazioa feminista ez bada, patriarkala delako" Estitxu Garai; borroka feministetako bat, "etxebizitzaren eta okupazioaren aldeko borroka" izateagatik, Maider Arregi eta Nerea Valdes (Infernua Bizirik)...

Baterajotzerako izen-ematea: ehkoneskagazteak.eus

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta notatasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

Booktegi egitasmoaren jaialdia bueltan da

Iaz bezala, euskarazko literatura guztion esku sarean jartzen daraman udal-erri honetan sortutako Booktegi elkarteari lotutako aurtengo urtemuga jaialdia urriaren 28rako iraga-

rri dute. "Aurtengo partaideak, besteak beste, Nere Ibarzabal, Eneko Bidegain, Arrate Egaña, Ugaitz Agirre, Miren Gorrotxategi, Maitane Perez, Maialen Akizu, Beñat Barandiaran,

Harkaitz Cano, Maite Larburu, Petti, Oihana Maritorea, Noaua Kultur Elkartea, Udarregi Ikastola, Nagore Legarreta, Ibai Arrieta, Joseba Urzelai, Jon Urbe, Mendi Urruzuno, Lander Rezola, Gari Garaialde, Idoia Unzurrunzaga eta Xabier Artola izango dira", aurreratu dute antola-

tzaileek. Irakurketa saioak, solasaldiak eta zenbait emandaldi iragarri dituzte. Aipatzekoa, sorkuntza munduan ezagunak diren parte hartzaile baita herri eragile hainbatena ere; NOAUA! K.E., Udarregi ikastola edota Sutegi udal liburutegia jaialdi honen sustatzaileen artean izango dira.


ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33


ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA



Uztaileko "eginaldian" sortu du Iñaki Martiarena 'Mattin'-ek Usurbilen giroturiko komiki literarioa. NOAUA!

Komiki literarioa izango du Usurbilek, Mattinek ondutakoa

Usurbil kide duen Udalbiltzak euskarazko sorkuntza sustatzeko abiarazitako 'Geuretik Sortuak' egitasmoaren bigarren edizioaren baitan, uztailean egonaldia egin zuen Iñaki Martiarena 'Mattin'-ek. Usurbilen giroturiko komiki literarioa landu du.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Lan baldintza egoki eta duin hauei esker, sorkuntzak dakarren ezinegon, ahalegin, ardura, neke eta zailtasuna arindu egin du.

Ahalegin hau ikusgarriago egiten lagundu dizu proiektu honek?

Egon badago interes bat jakiteko prozesua zein den. Geuretik Sortuak egitasmoak nolabait erakusten du baldintza egokietan, euskaraz ahal dela produktu duin bat egin. Neure kasuan behintzat intuizioz egiten dut lan bati-pat. Proiektu honetan nire ohiko grafikatik ere atera naiz eta kolorearekin lan handia

egin dut, jada zailena egin dut. Beti dago tentsioa sortzeko hasieran. Hiru oin ditu mahai honek: ondarea, bizi-penak eta nire oroitzenak. Izan ere, egonaldia Usurbilen egin behar nuenean oroitzenak errioa bezala etorri ziren. Usurbilen egon naizenean informazio bisuala, ondarearena jasotzen aritu naiz, herritarrekin ere izan dut egoteko aukera.

Inspirazio iturri emankorra izan da herri hau?

Bai. Artista handiak daude herri honetan eta apaltasunetik nire ekarpena egiten saiatu naiz, zerbait berria egiten. Proiektuak 20 orrial-

de baino gehixeago ditu, komiki literarioa da. Nirea zubi lana da. Zubiaren alde batean sortzailea eta bestaldean irakurlea legoke, eta erdian errioa, komikia. Literarioa izanik, hor lekua egiten diozu poesiari, hitz jokoari, umoreari.

Bigarrenez parte hartu duzu Geuretik Sortuak-en. Oraingoan, komiki lanak aurkeztu zitezkeen.

"HAU IKARAGARRIZKO ETA BEHARREZKO PLAZA DA"

Aurrekoan ordea ez zen halako modalitaterik.

Lehenengo komikiak aurkezteko deialdirik ez zuten egin, baina nire burua aurkeztu nuen, ahalduntze lan bat izan zen. Antolatzaileak horretaz jabetu eta testu hutssez sortutako lanen artean sartu zuten. Araitz, Betelu eta Larraunen egin nuen egonaldia. Bigarren edizio honetan, komikiari lekua eskaintzea erabaki dute.

Ikusgarritasun falta badu komikigintzak?

Bai, dudarik gabe. Duela bi urte hain zuzen horretan jarri nuen indarra. Beti diot, komikia paperezko zinema dela. Jakina, aurreiritziak egon badaude oraindik, baina bitxia da, zeren eta komikiak jasotzen du bere baitan hitza eta irudia, zubi bat da. Irudiarekin eta euskararekin lan egiten dut. Neure kasuan, hau da ikaragarrizko eta beharrezko plaza. Komikiak ez badu plazik, ez du aurrera egingo.

Eginaldiok zer arrasto izan dute zure ibilbidean?

Halako lehenengo esperientzia Hendaiako Nekatuenean izan nuen 2018an, Euskal Kultur Erakundearen eskutik. Geuretik Sortuak egitasmoaren kasuan, Usurbilgoa bigarren eginaldia izan da. Aurreko esperientziatik oinarri bat dago. Beti ardurak itotzen nau. Usurbilek duen itzalak eta nortasunak errespetua eman dit, baina hori gainditu eta bigarren esperientzia izateak lagundu nau, esaterako, kostata baina jasotako informazioa laburtzen eta sortze lana epe barruan bukatzen.

Labetik ateratzeaz izango duzu lan berri hau.

Maitasunetik egin dudana da hau. Eskerrak eman nahi dizkiot Udalbiltzari eta Udalarari, lan baldintza egoki hauengatik. Usurbil islatua geratuko da sortze lan honetan.

The Hastelen's, astelehenak existitzen segi arte

THE HASTELEN'S MUSIKA TALDEA

Alex de Miguelek, Iñaki Zugastik, Joxean Anduagak, Adolfo eta Alex Romerok, Gaizka Lasak eta Ainhoa Pikabeak osaturiko taldeak kontzertua eskainiko du Santueneko jaietan.

Santueneko jaien atarian, zer moduz dago taldea?

Taldean kide aldaketa bat izan dugu, baxujole berria dugu; Jon Azpiazu zen lehen eta Alex de Miguel orain. Bestalde, estreinakoz maiatzean lau kontzertuko biratxo egin genuen Artzabalén, Ibarren, Villabonan eta Lezon. Artzabalgo kontzertuaren ostean jaso genuen Santueneko jaietan emanaldia eskaintzeko gonbita.

Denbora honetan astelehenero biltzen segi duzue hutsik egin gabe?

Hori da aldatu ezin den ohi-tura. Astelehenetan izan behar du, garagardo bat hartzeko elkarrekin.

Ohitura horrek taldearen jatorri- ra garamatza.

Musika eskolak proposatu zuen halako talde bat osatzea bere 25. urtemugan, 2010ean. Hala hasi ginen. Gero, astelehenetan biltzeko ohituraren harira, grazia horretatik etorri zen The Hastelen's hau jartzea, astelehenari beste aurpegi batekin begiratzen diogu.

Zumarteko eraikuntza berrituak astelehenetako bilkurak goxatuko zituen.

Garai batean, sotoan entseatzeko genuen, umedade handia izaten zen. Eraikin hau obretan zegoen artean Santueneko frontoi ondoko lokalean,



The Hastelen's taldeko kideak, entseguen tokian, Zumarten. NOAUA!

hau obretan zegoen artean eta gero eraikin berrira etorri ginen. Guretzako luxua da gela bat izatea entseatzeko, dena muntatua dago, egokitua. Beti gaude eskertuak Zumarteri, elkartzeko eta jarraitzeko eman digun erraztasunagatik.

Zumarterenari estuki lotua dago hain zuzen, zuen ibilbidea.

Zumarterekin hazi gara gu. Instrumentuak aspaldi jo gabeko edo instrumentu berriren bat probatu duen jendea ginen. Zumarterekin hazi gara eta The Hastelen's-ekin musikari eta talde bezala.

Sortzen, abestiak berreskuratzen... Zertan zabilzate azken aldian?

Kanta batzuk egokitzen aritu gara, gustuko ditugunak, gure talderako egokiak direnak. Unearen arabera, estiloz aldatu dezakegu, folk aldera jo. Rock unean bagaude orain, ditugun instrumentuekin beste ikuspuntu bat ematen rock abesti bati adibidez.

Taberna atariak, auzoetako jaiak... Publikoarekin gertuko hartumana izan duzue. Zer jaso duzue haiengandik?

"BETIKO ABESTIAK JOKO DITUGU. SANTUENEARA AZALDU!"

Kontzertu handietakoak baino afalaurreko giro horretan eta plaza txikietan aritzen den taldea gara. Ez gara profesionalak. Astelehenetan elkartu, kontzertu txiki batzuk emanez jendearekin ondo pasa eta haiek ere gurekin ondo pasatzea nahi izaten dugu.

Nola irudikatzen duzue Santueneko emanaldia?

Jendea parrandan gustura ibili dadila. Beste belaunaldi batekoei ere festetara gerturatzeko gogoia piztu nahi genieke. Betiko abestiak joko ditugu. Santueneara azaldu!

Kide aldaketa izan duzue. Jon Azpiazu aritu da baxujole gisa taldea sortu zenetik. Zer esan nahi zenikete?

Jon guretzako ez da baxujolea, taldearen oinarria da. Gure taldekidea izaten segitzen du. Beti dugu presente eta berak ere asko jarraitzen gaitu.

Talde kide berria zara Alex. Zer nolako taldea aurkitu duzu?

Iaz, garai honetan jarri ziren harremanetan nirekin. Hasieran estilo oso ezberdinarekin egin nuen topo, belaunaldi oso ezberdinarekin. Lehenengo entsegu saiora etorri eta 15-20 kanta jo eta bi ezagutzen nituen. Lehenik, kanta ezagutu behar izaten nuen gero jotzen ikasteko. Erronka izan da, baina oso-oso gustura nabilt, oso urte ona izan da.

Zer rol du musikak zuen bizitzetan?

Musikaren inguruan mugitzen da gure bizitza. Honek beti musikara ekartzen gaitu. Talde honek musikan parte hartzaileak izatea eragiten du.

Gerora Zumarten sortutako taldeen artean aitzindariak zarete ezta?

Bai gu eta Ganbarakada. Talde piloak sortu da gerora. Gazte piloak dago, jaietako Bertsio Gauean ere ikusi zen moduan, publikoaren babesarekin gainera. Astelehenak existitzen segi arte jarraituko dugu.



Jai Batzordeak asteburu osorako egitaraua prestatu du. Ostiralean hasi eta igandera bitarte, ekitaldi ugari izango dira Santuenea auzoan. NOAUA!

Ur jolasekin abiatuko dira Santueneko festak

Ostiral honetan, arratsaldeko 16:00etan hasiko da ur festa. Bat baino gehiago blai izango da arratsaldeko 17:00etan egingo den txupinazoan.

Irailak 15, ostirala

- 16:00 Ur jolasak.
- 17:00 Txupinazoa.
- Ondoren, globo gerra.
- 18:00 Txokolatada (Zaharren Egoitzan banatuko dute).
- 18:15-18:30 Patata tortilla lehiaketarako tortilla entregatzea.
- 18:30 Karro-kalejira eta poteo mozorrotua.
- Ondoren, buruhandiak.
- 21:00 Patata tortilla lehiaketaren irabazlea.
- Ondoren, bakoitzaren tortillekin, auzo afaria.

- 23:30 Kontzertuak: The Hastelen's eta Muxutruk erromeria.
- Ondoren, txosnan jarraituko du gaueko parranda giroak.

Irailak 16, larunbata

- 10:00 Umeen tailerrak.
- 12:00 Que Toke El De Alau txaranga.
- 13:00 Buruhandiak auzoan zehar.
- 14:00 Haurren bazkaria (norberak ekarria, bertan edaria eta postrea banatuko dira).

- 15:30-16:00 Mus txapelketarako izen-ematea.
- 16:00 Mus txapelketaren hasiera.
- 16:00 Antzerkia: Pirata Garrapata.
- 17:30 Txokolatada (Tragoxka).
- 18:30 Buruhandiak eta Que Toke El De Alau txarangaren kalejira.
- 19:00 Sardin jana.
- 21:00 Ankoker taldearekin trikipotea.
- 00:00 Dj Gaua: Dj Fantasia, Dj Maik eta Dj Fi/Dj Gurru/Dj Azido Domingo.

Irailak 17, igandea

- 9:00 Esnadeia Jon&Jon-ekin.
- 11:00 Apar festa.
- 11:00 Toka eta igel txapelketak.
- 12:00 Hamaiketakoa txosnan.
- 12:00 Zanpantzarrak auzoan barrena.
- 14:00 Auzo bazkaria. Menua: entsalada, oilasko errea, postrea eta edaria. Tiketak Zaharren Egoitzan, Tragoxkan, Aitzagan eta Artzabalen salgai.
- Ondoren, bingoa.
- 18:00 Buruhandiak eta Karro-kalejira.
- 19:00 Piper dastaketa.
- 19:30 Balkoi apaintze lehiaketako eta argazki lehiaketako saridunak.
- 19:45 Hispanoamerica mariatxiak.
- 21:00 Festen amaierako traka.

Antolatzailea:
Santueneko Jai Batzordea.

Santueneko argazki lehiaketan saritutako irudiak

Asko izan dira Santueneko argazki txapelketara aurkeztu diren herritarrak. Ura zen proposatutako gaia eta, bistakoa denez, natura izan da parte hartzaileek islatu dutena. Antolatzaileek oraintsu jakinarazi dituzte irabazleen izenak. Saritutako hiru argazki batu ditugu orrialde honetan.

Sariketa honetan parte hartzeko epea abuztuaren 31n itxi zen. Guztira 23 argazki aurkeztu zituzten txapelketako hiru mailetan. 11 urtera artekoan, zazpi argazki aurkeztu zituzten. 12-17 urte arteko gaztetxoenean lan bakarra eta hortik gorako helduen kategorian, 15 irudi. Epaille lanetan Amaia Echedona Zubeldia aritu da, ikus-entzunezko lanetan eskarmen-tuduna.




Helduak, 1. saria: Koro Arroyo Iruretagoiena. 125 euroko balea jasoko du Esnaola janari-dendan erabiltzeko.

Sari banaketa

Sari banaketa igande arratsaldean egingo da, arratsaldeko 19:30ean.



Helduak, 2. saria: Gorka Mendinueta Avila. 75 euroko balea, Esnaola janari-dendan erabiltzeko.



Gaztetxoak, 1. saria: Ane Ugarte Machinandiarena. 75 euroko balea, Usurbilgo dendetan erabiltzeko.

Errausketa alboratzeko deia berretsi dute

Hondakinen errausketa alboratu eta plan eraginkorrak sustatzea galdegin zuten igandean Kontxan.

NOAUA! DONOSTIA

Hondakinak erraustearen aurkako giza harresia altxa zuten iragan igandean beste urte batez, Donostiako Kontxan. Estropaden azken jardunaldia tarteko, Zubietan, Zumarragan eta Bergaran sustatzen ari diren ildo horretako egitasmoak salatu zituzten. "Gipuzkoako agintariek herrialdea gai desberdinen erraustegiz betetzea baino idea hobirik ez dute". Gai honi bestelako irtenbidea ematea eskatu zuten, Alderdi Ederretik hasita gero hondartza inguratu zuen giza katearen bidez. Horretarako, hain

zuzen, hondakinak murrizteko plangintza eraginkorrak galdegin zituzten, baita modu bereko, alegia, ahalik eta eraginkorrena izango den gaikoko bilketa sustatzea ahalik eta hondakin gehien berrerabiliz eta birziklatzeko.

Zubietako erraustegiari dagokionean, oroitarazi zuten, "hiru urte bakarrik pasa direnean, oso nabaria da kutsadura inguruko lur, landare eta arraultzetan, ToxicWatch fundazio holandarraren analisiek erakusten duten moduan. Bestalde, duela urtebete antzeman zen Arkaitzerrekako



Irailaren 10eko giza kateko irudi gehiago, noaua.eus atarian dituzue. NOAUA!

kutsadurari ez zaio konponbiderik jarri".

Eragile gehiagorekin

Ohi baino eragile gehiagok bat egin zuten mobilizazioarekin. Erraustegiaren Aurkako Mu-

gimendua, Bergarako Larra-mendiko Arnasa eta Urretxu-Zumarraga Bizi plataformek deitu zuten iragan igandeko giza katea. Eragile sindikal eta sozial hainbaten babesa izan zuen hitzorduak.



Kontxako hondartzan barrena hedatu zuten errausketaren aurkako aldarria.



Giza kateak herri harresi itxura, Kontxako ur ertzean.



Errausketa ez dela irtenbidea salatu zuten giza kateko parte hartzaileek.



Irudiko aldarria ikusgarri egin zuten, estropadei begira ari zirenen artean.

SARRERA
DOAN!




GO! arzen

KARAOKEA


IRAILAREN 16A
KARAOKE 18:00h | PHOTOCALL 19:00h

Informazio guztia www.urbil.es-en kontsultatu.



Mezu gordea


Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia. Esatera zahar bat agertuko zaizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA




Handienetik txikienera



Ordena itzazu eltzeitsu hauek handienetik txikienera, 1etik 8ra zenbakituz.

Ezetz asma!



Azpiko praktatan harrapatu dugun txerri dotore hau arra da. Txerri arrak izendatzeko hitz zehatzak ditu euskarak, ba al zenekien? Honoko zazpi hauen artetik hiruk, esaterako, horixe bera esan nahi dute. Ea asmatzen duzun zeintzuk diren.


- ORDOTSA
- ARLOTEA
- KUIA
- AKETZA
- KOSKABILOA
- APOTEA
- MIZPIRA

Hiru txerri txoak




	D	A	E	K		
		E	A			
E					D	A
K	A					R
		K	R			
	E	R	D	U		

Zure eguneroko hizkeran, zer dira bi lagunok, txerriak edo urdeak? Sudoku honetan, URDEAK dira, eta hitz horren parte diren sei letrak beharko ditugu zuriuneak osatzeko (U, R, D, E A eta K). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.





SUDOKUA



NON demontre...


Lagundu txerrikume honi gogoan duen adiskidea aurkitzen. Eroen gisan atera dira denak kortatik, eta orain bi lagunek ez dute elkar aurkitzen.

Zein da txerri malabaristaren itzal zuzena? Bide batez, margotu ezazu



Itzalak

Ispiluan baleude bezala ikusten dituzun bi irudiok berdinak ematen dute baina ez da hala. Aldea dago batetik bestera. Guztira 19 ezberdintasun aurkitu behar dituzu.



Aginagako pilota jaialdirako sarrerak salgai

Irailaren 29an emango diete hasiera San Praixku jaietako hiru partidako pilota jaialdiarekin.

San Praixku jaietako lehen hitzorduen artean, dagoeneko Jai Batzordeak iragarri eta aurkezturiko pilota jaialdia izango da. Hilabeteko azken ostiral gauean, irailaren 29an ospatuko dute, 21:30ean hasita Ariztitxo frontoian.

Hiru partida barne hartuko ditu jaialdiak; binaka jokatuko diren saio hauek etxeko ordezkari izango dute, gainera:

1. partidaren gaztetxoak:
Aiert Aburuza-Ander Pagola / Aimar Alejo-Enaitz Errasti.



Aitor Aranguren etxean arituko da.

2. partidaren emakumezkoak:
G. Zabaleta-I. Erasun / M. Arrillaga-N. Mendizabal

3. partida:
Alberdi II-Aitor Aranguren / Artola-Iztueta

Sarrerak
Sarrerak salgai dituzue jada entradasfronton.com atarian. Datozen asteetan, Aginagako Arrate tabernan ere erosi ahalko dituzue, edota egunean bertan Aginagan kokatuko duten salmentarako lehiatilan.

Herri eta gazte afariak
Jaietako bi otorduetarako txartelak ere aurrez eskuratu ahalko dira eta.

Irailaren 30ean ospatuko den herri afarirako txartelak 30 eurotan topatuko dituzue Arraten salgai, haurrenak 15 eurotan.

Urriaren 6ko gazte afaria aldiz, Aginaga sagardotegian egingo da. Prezioa: 30 euro. Izena irailaren 29a baino lehen eman beharko da, honako telefono zenbakira deituz: 616 93 35 56.

Enrike Abril txapelketa

Igande honetan jokatuko da lehen faseko azken neurketa, Zubieta eta Kanboarrak taldeen artekoa, goizeko 10:30ean hasita Zubietako errebote plazan.

Superkopa Bera Berarentzat

Bi usurbildar daude une honetan Donostiako eskubaloitzaileak: Esther Arrojeria jokalaria eta Jon Begiristain entrenatzailea. Finaleko aurkaria Costa Del Sol Malaga taldea izan zen eta bertan beste usurbildar bat aritu zen, Estitxu Berasategi jokalaria.



Bera Berakoak, Iberiar Superkoparekin.



Kronika^{ren}

aldeko Herriarteko Erremonte Txapelketa

2023 / 09 / 29 - 16:00 - **Galarreta jai-alai**

Bailarako 20 sagardotegi baino gehiagoren sagardoa
Dantzariak

SARRERA 12€

PINTXOA + EDARIA

*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN






EUSKARA - IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Usurbilgo AEK euskaltegia

Matrikulazio epea: irailaren 1etik 28ra

Maila guztiak A1, A2, B1, B2, C1, C2

AURREZ AURREKO ESKOLAK + jarraipen pertsonalizatuak (tutoretzak)

Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza

Alfabetatze ikastaroa

Hobekuntza ikastaroak

Mintzamina lantzeko ikastaroak astean 2 egunez

Bulego ordutegia: 11:00-13:00 / 17:00-19:30

Ostiraletan: 11:00-13:00

Nagusi kalea 43, behea, Usurbil.

607 609 379 · usurbil@aek.eus



DIRULAGUNTZAK / BECAS

EUSKO JAURLARITZA

Maila egiaztatuz gero
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

USURBILGO UDALA



Aurrez aurreko eskolak
Clases presenciales



Autoikaskuntza
Autoaprendizaje



Normalizazio-planak
Planes de normalización



Mintzapraktika



Online



Itzulpenak-Zuzenketak
Traducciones-Correcciones



Barnetegiak



izu! aldizkaria

- HABEk homologatutako euskaltegiak
Euskaltegis homologados por HABE
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
Cursos de preparación de exámenes oficiales

HABEk diruz lagundua **HABE**

Eman izena · **Matricúlate**

www.aek.eus · 673 200 100 · 946 464 000



Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

943 53 92 66 - 623 462 658

✉ irati.ibargoien@gmail.com

🌐 iratibargoien.com

📱 @irati_ibargoien_fisioterapia

📍 Puntapax kalea 6B.behea ezk. Usurbil 20170


eskura

elikadura eta dietetika aholkularitza

·diabetesa ·hipertentsioa ·gizentasuna
·elikadura eta kolesterol arazoak

*elikadura ohiturak zure neurria aldatzen
laguntzen dizugu!*

688 843 696 ZUBIAURRENEA 1, 1C USURBIL



USURBIL
OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



·Dosifikazio sistema pertsonalizatua
·Dermofarmazia
·Produktu homeopatikokoak
·Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.


Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 19/22



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

zenta



ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etxez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

Osakidetzarekin
hitzarmena

www.zenta.es



Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima
MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

📞 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Eskaintza oparoa, Parekidetasun Sailetik

Ikasturte osora luzatuko den lehen hilabeteotarako eskaintza iragarri du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak.

Udaletik azaldu dutenez, Kalezarko Pelaioenean kokatuko den Emakumeen Etxeko nahiz auzo ekipamenduko lanen amaiera atzeratu egingo da. Izatez, segidan zehazten diren zerbitzuak bertan eskaini nahi zituzten ikasturte hasieratik. Oraingoan, ordea, lanok amaitu artean Potxoenean eskainiko dira.

Aurrerago irekiko dute, beraz, Emakumeen Etxea. Aurreratu dutenez, hiru atal nagusi izango ditu. "Batetik, kontzientzia feminista sustatzeko jarduerak: horretarako, jabetze-eskolak eta kultur ekitaldiak antolatuko dituzte. Bestetik, erabilera antzeko espazioak egongo dira: goxo egoteko gune bat eta liburutegi feminista bat izango ditu, eta irakurketa feminista talde bat sortzea ere aurreikusizuten. Horrez gain, zerbitzuei dagokienez, emakumei arreta eta harrera eskainiko zaizkie, Aniztasun sailaren harrera zerbitzua ere handik kudeatuko dute, eta aholkularitza juridikoa eta sexu aholkularitza ere han kokatuko dituzte".

Sexu aholkularitza gunea

Bi astelehenean behin eskainiko da, oraingoan Potxoenean: irailaren 18an, urriaren 2an, 16an eta 30ean, azaroaren 13an eta 27an, abenduaren 11n... Hitzordua bideetatik eskatu

ahalko da: info@xelebreak.com / 650 232 714. "Adin guztietako herritarrei zuzendutako zerbitzua da, herritarrek sexualitatearen inguruan izan ditzaketen zalantza, zailtasun eta/edo informazio beharrei erantzuteko", gogorazi dute Udaletik.

Aholkularitza juridikoa

Hilean bitan eskainiko dute zerbitzu hau, oraingoan Potxoenean: irailaren 20an eta 25ean, urriaren 4an eta 18an, azaroaren 15ean eta 29an, abenduaren 12an eta 18an... Hitzorduan udaletxean edo 943 371 951 telefono zenbakian eskatu ahalko da. Udalak kontrataturiko Irule abokatu taldeak eskainiko du zerbitzu hau "Usurbilgo emakume guztiei zuzendutako zerbitzua da, eta, gutxienez, ordubeteko aholkularitza legala jasotzeko aukera izango dute", hainbat gai konplexuri buruzkoa hain zuzen: "banaketa, dibortzioa, emakumeen kontrako erasoei buruzko prozesu penalak, dibortzio prozesuetatik sortutako gatazkak, mantenu pensioen ordainketa ezak, bisita erregimenen ez betetzeak, atzeritartasunarekin lotutako arazoak, etxeko langile zein gainontzeko langile emakumezkoen kaleratzeak, diskriminazioa, eskubideei buruzko informazioa, laguntza sozialak eta bestelako kontsultak".



Pepa Bojok "Autoestimua eta ahalduntzea" ikastaroa eskainiko du urriaren 5etik abenduaren 14ra Potxoenean. Ostegunero izango da, eta gazteleraz.

Jabetze eskola

Bi ikastaro iragarri dituzte:

- "Autoestimua eta ahalduntzea" Pepa Bojoren eskutik (gazteleraz), urriaren 5etik abenduaren 14ra, ostegunero oraingoan Potxoenean, 17:00-19:00 artean. "Autoestimua funtsezko oinarria da, eta horretan oinarritzen da ahalduntze-prozesua. Tailer hau gure gizarte patriarkalean autoestimua nola eraikitzen den ulertzeko tresna bat da, bizitzan zehar jaso ditugun mezuetatik zeintzuk laguntzen eta ahalduntzen gaituzten jakiteko; baita zein baliabide, indargune eta trebetasun ditugun jakiteko eta geure buruarekin harreman ona sortzeko, zaintzaren eta auto-konfiantzaren bidez".
- Biodantza, urriaren 3tik abenduaren 12ra, asteartero, 15:30-17:00 artean Oiardo kiroldegian. "Biodantza musika, mugimendua eta emozioa uztartzen dituen jakintza bat da. Modu honetan, bakoitzak

bere pentsamendu, sentimendu eta ekintzen kontzientzia hartzen du. Tratu onak ematen dira norberarentzat, besteentzat eta inguruan ere. Besteekiko enpatia garatzen da, eta afektuan oinarritutako harremanak sortzen dira. Autoestimua hobetzen da, eta maitatzeko gaitasuna handitzen laguntzen du. Adin guztietako emakumei zuzendua dago eta ez da aurretik dantza egiteko esperientziarik behar".

Ekitaldi gehiago

Beste bi ekimen iragarri ditu Parekidetasun Sailak azarorako:

- Azaroak 19, 19:00: "Hiru kortse, azukre asko eta Brandy gehiegi" antzerki saioa Sutegin.
- Azaroak 28, 18:00: Helduentzako ipuinak. Dorleta Kortazar Alkoz: "80 amandre" Sutegegi udal liburutegian.

Ekitaldi hauetarako sarrerak azaroan jarriko dira salgai, usurbilkultura.eus plataforman.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
7ABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Parti
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Ines Azpiazu (650 Usurbil Bizi), Agurne Alkorta (Usurbilgo Kulturgunea) eta Jon Mikel Azpiazu (Usurbilgo Udala). NOAUA!

'Xumetik' jaialdia, herritik herriarentzat

50 urte bete dituen Jose Luis Zumetaren frontoi atzeko muralarekin harremana estutzeko aukera izango da herri eragile anitzek irailaren 22 eta 23rako antolatutako ekimenen bidez.

'Xumetik' jaialdia iragarri dute, herritik herriarentzat.

Zein da herri jaialdi honen abiapuntua?

Ines Azpiazu: Zumetaren muralaren 50. urtemugaren baitan, hainbat ekimen programatuak zeuden urte hasieratik: hormaren sendatze lanak eta haiek erakusteko bertara egindako bisita gidatuak, muralaren sortze prozesuari buruzko erakusketa, 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidatuetan ere azpimarra berezia egin zaio muralari... Programazio horretan herriko baliabideekin jaialdi bat sortzea Usurbilgo Kulturgunearekin.

Agurne Alkorta: Ez da '650 Usurbil Bizi' egitasmoarekin elkarlanean egiten dugun lehen ekimena. Hartueman horretatik sortu zen jaialdiaren ardura Kulturgunearerabat bere gain hartu izana. Dena libre utzi zaigu, aukeraketa erabat gurea izan da. Urtarriletik la-

nean aritu gara gogotsu, baidator eguna.

Kulturgunea aipatzean, herri auzolanaz ari gara.

A.A.: Behar batzuk identifikatu eta horiei elkartatuta aurre egiteko sortu zen Kulturgunea. Une honetan, lan-ildo gehiago baditugu ere, 'Xumetik' antolatzen zentratuak gaude.

Ekimen ezin egokiagoa Kulturgunearen filosofia kontuan hartuta.

A.A.: Lan asko dugu, baina pozik ari gara. Hain pozik egongo ez bagina, ez genukeen halako gauza handirik egingo. Jaialdi oso berezia izango da, herritik herriarentzat eskainiko dena.

Jon Mikel Azpiazu: Usurbilgo Udalarentzako Kulturgunea bezalako talde indartsu bat egotea gauza handia da. Bide-lagun bezala lan egingo dugu

jaialdi honetan eta aurrerantzean.

Omendua eta jaialdiaren beraren izaera irudikatu nahi izan dizue izenarekin?

A.A.: 'Xumetik' partaide batek proposatu zuen bileran, zuzenean jada izenburu bilakatu zena. Guretzako beti Usurbilen Xumeta izango da. Bestetik, jaialdia xumea izango da. Goxotasunetik, oso hurbiletik, herritik sortutakoa. Bera ere halakoxea zen. Horregatik, ez zaio Zumetari edo muralari halako lore eskaintza edo go-

"ARTE DIZIPLINA EZBERDINAK BIZITZEKO AUKERA IZANGO DA"

raipamenik egingo. Beste bide bat hautatu dugu, denok erosoago egon gaitezkeena. Xumeagoa den zerbait egitea nahi genuen, gureagoa dena. Ea asmatu dugun.

Ez du erraza izan behar halako artista baten mailako herri jaialdi bat prestatzea. Erraza egin al da sorkuntza lana? Gustura geratu zarete emaitzarekin?

A.A.: Ez da erraza izan, ardura handia sentitu genuen hasieratik. Gu ere horren inguruan informatzen saiatu gara. Usoa Zumetarekin bere estudioan egon ginen. Lehenengo ideia batzuk proposatu genizkion bere iritzia jasotzeko, berak bueltan beste ideia batzuk proposatu zizkigun. Pixkanaka eraikitzen joan gara herri jaialdia. Bileran asko egin ditugu Usurbilgo Udalarekin eta '650 Usurbil Bizi' egitasmokoekin. Denbora guztian partekatu dugu haiekin gure bide honetan zer ideia genituen. Egia esan, erraza izan dela sentitu dugu, denbora guztian babesa sentitu dugulako. Ideia bat eta beste, azkenean, egun nahiko borobila eta orekatua geratu zaigu. Eragile desberdinak egote horrek ikuspuntu oso desberdinak izatea eragin du. Egia esan, ez dakit jabetzen garen zenbat eragile desberdin ditugun herrian, halako egun oso bat gai garelako geuk bakarrik antolatuzko. Horregatik, zehaztu genuen ekimen hau herri jaialdia izango zela.

Zer nahi dizue jasotzea herriak jaialdi honetan?

I. A.: Arte diziplina ezberdinak bizitzeko aukera izango da. Laburmetraia ikusteko aukera izango da, tailerretan jendeak ahalko du bere esku propioekin sortu, bisita gidatuetan ere ahalko da ikasi herrian dagoen arte garaikideari buruz eta gaueko emanaldia ikusi eta entzuteko tartea izango da.

A.A.: Usurbilen ez dut uste inoiz halako ezer kalean ikusi denik. Artea kalean dugu baina agian

behar duen balioa ez diogu eman, horretara goaz.

J.M.A.: Bizirik eta gertutik sentitzeko ekimena izango da. Ekintza asko dira jasotzekoak baina baita ere parte hartzekoak, eta oso jaialdi bizia, gertukoa, parte hartzailea eta anitza izango da. Sekulakoa izango da.

Sekula ikusi gabekoa?

J.M.A.: Egin ditugu ekimen bereziak Usurbilen baina jaialdi hau iruditzen zait dela berezia, diziplina ezberdinak nahasten dituen. Nabari da denboraluzez prestatzen doan zerbait izan dela.

A. A.: Argi zegoen hitz bat egon behar zuela gaueko jaialdi horretan eta zen abangoardia. Zumetak murala egin zuenean hori zen erabat, abangoardia eta guk nola izan behar genuen abangoardia 2023an, horixe islatu nahi genuen. Ez genuen berarekin lehiatu nahi, ezinezkoa da,



'Xumetik'-en kartela. Egilea: Malen Aierbe Zubeldia. NOAUA!

baina bai nahi genuen geure burua horretan jarri eta ea hori lortzen dugun gau horretan. Jaialdi egunerako murala behar dugu. Euria egingo balu, emanaldi lekuan bertan izan behar duenez, atzeratu egingo da eguna, ez da tokiz aldatuko. Bide batez, eskerrik asko handi bat hau dena gauzatzen lagundu duten guztiei.

Islatu nahi dena emanaldiaren atzean egongo den muralarekin nolabaiteko elkarrizketa bat?

J.M.A.: Murala bizirik jartzeko.

A.A.: Muralarekin bat egingo den jaialdia izango da.

Bisita gidatua izango du herri jaialdiak, ezohikoa.

I.A.: Denboraz luzatuko gara, "Usurbil Museo Irekia" bisi-

ta gidatuek izaten dituzten geldialdiak aldatu egingo direlako, geltoki bitxiagoak egongo direlako. Girotua izango da. Asmoa arte garai-ideak herri honetako kaleetan duen garrantzia azaltzea da, muralari buruz pixka bat gehiago ikastea, modu entretenigarri batean.

Hori gutxi ez eta, bezperan laburmetraiaren estreinaldia egingo da.

A.A.: Zubietan grabatu zen eta bertan estreinatuko da. Herriko jendeak ere parte hartu du. Guk ez dugu ikusi emaitza, guretzako ere sorpresa izango da.

J.M.A.: Errebote plazan aurkeztuko da. Zubietako Herri Batzarrarekin bidelagun bezala ibili gara. Asko erraztu dute prozesua.

I.A.: Oskar Alegriak muralari egiten dion pieza bat da. Zinematik nola ulertu duen berak murala.

'Xumetik', hitzorduz hitzordu

Irailak 22, ostirala

22:00 Zubietako errebote plazan:

• Zumeta 23 dokumentalaren aurkezpena:

Sinopsia: "Duelamende erdi, Jose Luis Zumeta artistak bere lanik ikonikoena utzi zigun bere herriaren bihotzean: Usurbilgo frontoian. Egun bi pilotari-margolarik kolore festa bat ospatu dute bere omenez".

Zuzendaritza: Oskar Alegria. Kamerak: Juanfe Garces, Beñat Gereka, Luis Jambriña. Audio eta soinu-post-produkzioa: Luca Rullo. Edizio eta irudi post-produkzioa: Luis Jambriña, Aitor Oñederra. Makillajea: Oihana Garde. Atrezzo eta laguntzaileak: Alicia Otaegui, Elias Alegria, Jon García Olabarri. Pilotari pintoreak: Maite



'Zumeta 23' laburmetraiaren grabazioiko une bat. NOAUA!

Ortiz de Mendibil, Manex Urtasun. Kolore nahasketa, muralaren inspirazioa: Kolobika Jauregi. Musika: Peru Galbete + "Urtsua uda", Mikel Laboa. Ahotsak: Agur- ne Alkorta, Arrate Eizagirre, Maria Jesus Tolaretxipi, Antonio Iparragirre, Iñaki Zugasti, Aitor Agirre, Ain-

tzane Aizpurua, Nekane Zaldua.

• Peru Galbete eta Gu taldearen kontzertua:

Sinopsia: "Peru Galbeteren laugarren diskoa da Beiratu. Bizitzari begietara begiratu, edo beiratu. Beiratzea ere badelako gauza bati beiraren

ezaugarri edo itxura ematea, eder mantendu dadin. Hirukote akustiko formatuan dator Peru, Idoia Arizaleta gitarra eta teklatuan eta Santi Etxeberría kontrabaxuan". Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Zubietako Herri Batzarra.

Irailak 23, larunbata

Xumetik herri jaialdia:

11:00-13:30 Arte plastikoaren erakusleihu eta tailerrak herriko sortzaileekin, Mikel Laboa plazan.

12:00 Oskar Alegriak Zumeta 23 film laburra aurkeztuko du, Mikel Laboa plazan.

18:00 Usurbil Museo Irekia ibilaldi berezia, ezohiko geldialdiekin eta herritarrek girotua.

22:30 XUMETIK ikuskizuna: muralaren gogoetak dantza, antzerki eta musika bidez.

Antolatzailea: Usurbilgo Kulturgunea.

Hainbat zerbitzu ohiko ordutegira itzuli dira

Sutegi udal liburutegia

• Astelehenetik ostiralera; 10:00-13:00 / 16:00-19:30. Larunbatetan itxita urrira arte.

Informazio gehiago: biblioteca@usurbil.eus
943 360 693

Sutegin bertan (Irazu, 14)
688 625 477 (whatsapp zerbitzua).

Garbigunea

• Irailaren 15era arte: astelehenetik ostiralera, 10:15-12:50 artean eta 16:00-18:20 artean. Larunbatetan, 09:00-12:50 artean. Igande eta jai-egunetan itxita.

• Irailaren 15etik aurrera aldaketa bakarra; arratsaldeetan 18:50ak arte zabalik.

Oiaro kiroldegia

• Lanegunak: 7:00-12:30/14:30-22:00 (Igerilekuaren itxiera ordua: 12:15/21:30).

• Larunbatak: 09:00-21:30 (Igerilekuaren itxiera ordua: 21:15).

• Igandeak eta jai egunak: 9:00-13:30 (Igerilekuaren itxiera ordua: 13:15).

Informazio gehiagorako: 943 37 24 98
kirola@usurbil.eus
bpxport.es

Bus-taxia

• "Bidez Bidez" zerbitzua ohiko ordutegian dabil berriz herrian barrena.

Informazio gehiago: 630 643 596
usurbil.eus

Euskotren

Aste hasieratik "neguko" ordutegia du indarrean.

Informazio gehiago: euskotren.eus



Udal liburutegia goizez eta arratsaldez irekita topatuko duzue.

944 333 333

Kale Nagusia, 37
943 023 684

Lurraldebus

• Hilabete hasieratik ohiko ordutegia du indarrean.

Informazio gehiagorako: 900 300 340
lurraldebus.eus

KzGunea

• 16:00-20:00 artean irekiko dute irailaren 29ra arte.

Informazio gehiagorako:

Aldaketak ibilaldi gidatuetan

Baxurde Krosa tarteko, irailaren 17an ez da 'Usurbil Museo Irekia' bisita gidaturik egingo.

Hilaren 23ko 'Xumetik' herri jaialdia tarteko, arratsaldez egingo da ibilaldi gidatu hau, 18:00etan hasita.

Aurrez eman behar da ize-na 650usurbilbizi.eus atarian.

Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia. Esaera zahar bat agertuko zaizu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A B C D E F G H I J
K L M N O P Q R S T
U V W X Y Z ?

Handienetik txikienera

Ordna irfazu eltzaisu hauek handienetik txikienera, letik 8ra zenbakituz.

Ezetz asma!

Azpiko prakatan harrapatu dugun txerri dotore hau arra da. Txerri arrak izendatzeko hitz zehatzak ditu euskarak, ba al zenekien? Honako zazpi hauen artean hiruk, esaterako, horixe bera esan nahi dute. Ea asmatzen duzun zeintzuk diren.

ORDOTSA ARLOTEA KUITA AKETZA
KOSKABILOA APOTEA MIZPIRA

Hiru txerri txoak

Plazan Bazan 12/13 orrialdeetako soluzioak.

R	D	A	E	K	U
U	K	E	A	R	D
E	R	U	K	D	A
K	A	D	U	E	R
D	U	K	R	A	E
A	E	R	D	U	K

Zure egunerako hizkeran, zer dira bi lagunak, txerriak edo urdeak? Sudoku honetan, URDEAK dira, eta hitz horren parte diren sei letra beharko ditugu zuriuek osatzeko (U, R, D, E A eta K). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

SUDOKUA

NON demontre...

Lagundu txerrikume honi gogoan duen adiskidea aurkitzen. Eroen gisan atera dira denak kortatit, eta orain bi lagunak ez dute elkar aurkitzen.

Zein da txerri malabaristaren itzal zuzena? Bide batez, margotu ezazu

Itzalak

Isplian baleude bezala ikusten dituzun bi irudiok berdina ematen dute baina ez da hala. Aldea dago batetik bestera. Guztiara 19 ezberdintasun aurkitu behar dituzu.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674
Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an bertitua. 670 410 273.

Mutil batentzako pisu bila nabil. 622 925 562.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazio gehiago Elizalde inmobiliarian 943 35 35 34

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera deitu).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. Telefono zenbakia: 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zerbitzaria behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Astean pare bat arratsaldez adineko emakume bat zaintzeko pertsona baten bila nabil. 653 018 132.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa izango da. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz

jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordutegian malgutasuna daukat. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia. 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis)

Paseoko bizikleta bat daukat salgai. Egoera oso onean dago. 644619358.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

ZORION AGURRAK



Zorionak Izaro!

Oso ondo pasa zure egunean!! 13 muxu erraldoiak!! Familiaren partez.



Zorionak Manex!

Gure etxeko txikiak bere lehen urtetxoa beteko du irailaren 17an! Oso ondo ospatuko dugu... Muxu asko asko... Familia osoaren partez!!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 14	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 15	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 16	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 17	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Astelehena, 18	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astearte, 19	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 20	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 21	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 22	GANDARIAS-URIBE Inigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 23	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 24	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURI ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Jose Antonio Larburu Zubeldia
Irailaren 5ean hil zen, 72 urterekin

Urte askotarako!

Zorion itzazu sanitaritekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 15

SANTUENEA Auzoko jaiak

Jaien hasiera.
Egitarau osoa 8. orrialdean.

LARUNBATA 16

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 3 eurotan (18 urtetik beherakoek doan). Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus
12:00-13:00 Sutegin.

SANTUENEA Auzoko jaiak

Egitarau osoa 8. orrialdean.

IGANDEA 17

USURBIL Baxurde Krossa

Helduentzako nahiz gazteentzako lasterketa.

SANTUENEA Auzoko jaiak

Egitarau osoa 8. orrialdean.

OSTIRALA 22

ZUBIETA "Zumeta 23" dokumentalaren aurkezpena

Proiektzioaren ondoren, Peru Galbete eta Gu taldearen kontzertua
22:00 Zubietako errebotte plazan.



Izen-ematea online bideratu ahalko da soilik, kronoak.com web orrian.

Frontoian hasi eta amaituko da Baxurde Krossa

Baxurde Krossak korrikalari ugari erakarriko ditu igande goizean. Goizeko 10:30ean hasi eta eguerdiko 13:00ak arte luzatuko da eta eragina izango du kaxkoaren inguruko trafikoan. Ordutegia hauxe izango da:

- 09:00 Dortsalen banaketa Mikel Laboa plaza ondoan.
- 10:30. Distantzia, 10,9 km.
- 12:00 Umeen krossa 2008-2015 urte artean jaiotakoentzat: Benjaminak (8-9 urtekoak), 2014-15ean jaiotakoak) eta alebinak (10-11 urtekoak, 2012-13an jaiotakoak). 600 m.
- 12:10 Infantilak (12-13 urtekoak, 2010-11n jaiotakoak) eta kadeteak (14-15 urtekoak, 2008-09an jaiotakoak). Distantzia, 1.000 metrokoa.

- 12:20 Prebenjaminen lasterketa, Distantzia, 200 metrokoa.

Izen ematea:

- Irailaren 16an larunbata, eguerdiko 12:00ean itxiko da izena ematea, kronoak.com atarian. 12 euro helduen lasterketa, doan umeen krossa.

Oharrak:

- Kontsigna, frontoian.
- Izen-ematea online bideratu ahalko da soilik.
- Lasterketa amaieran, sari banaketa eta partehartzaile guztientzat opariak eta zozketak.
- Antolatzailea: Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea.

Informazio gehiago:
kronoak.com.

Pilota partidak

Irailak 14, osteguna 20:30 Usurbilgo frontoian

Gipuzkoako Txapelketa nagusia, 1. maila:

- Pagazpe (San-txo-Urruzola).
- Zazpi Iturri.

Irailak 15, ostirala 18:00 Aginagako frontoian

- EBI, Kadeteak, 3. maila:
- GPBI, Nagusiak, 1. maila:

Pagazpe (Errasti-Salegi)-Altzatarra.

- EBI, Kadeteak, 1. maila:
- Pagazpe-Bergara.

Muztio tailerra

Irailak 22 ostirala

- Ordua: 16:00.
- Tokia: Alkartasuna Kooperatiban.
- Zehaztasunak: etxeko sagarra baliatzeko eta kalitatezko sagar muztio pasteurizatua egiten ikasteko tailerra.

Izen-ematea:

- Emaillez: alkartasuna@usurbil.com
- 943 361 114

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8, USURBIL
943 37 00 08

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiarrene 2, 943 36 55 81



Irailaren 23an,
larunbata, goizeko 11etan,

Usurbilgo Alkartasuna
Baseritarren Kooperatibaren atarian

sagar muztioa egiteari ekingo diogu.

Gure helburua, familia eta lagunartean etxeko muztioa egitea da, ondoren dastatzeko.

Muštioa egiten ikasteaz gain, etxean egin ahal izateko tresneriaren erabilera errazaz jabetuko gara. Gero bakoitzak etxean bere sagarrekin muštioa egiteko beharko duena ikasiko du.

Anima zaitez, zure zain egongo gara!





XUMETIK

HERRI JAIALDIA IRAILAK 23

IRAILAK 22 OSTIRALA
ZUBIETAKO ERREBOTE PLAZAN

22:00

"Zumeta 23" film laburraren aurkezpena eta "Peru Galbete eta Gu" taldearen musika emanaldia



IRAILAK 23 LARUNBATA
ZUMETAREN MURALAREN AURREAN

11:00-13:30

Arte plastikoen erakusleiho eta tailerrak herriko sortzaileekin

12:00

"Zumeta 23" film laburraren aurkezpena, Oskar Alegriarekin

18:00

"Usurbil museo irekia" ibilaldi girotua

22:30

XUMETIK ikuskizuna
Muralaren inguruko gogoetak dantza, antzerki eta musika bidez

